hirulka
150. zenbakia
2019ko iraila

URIBE KOSTAKO JAIAK Argazki-bilduma

Udako bizipoza gogoan gorde dezagun!

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Administrazioa: Ziortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo · Leioa · Erandio · Berangoko Udala · Plentziako Udala · Gorlizko Udala · Urdulizko Udala · Barrikako Udala · Lemoizko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Eusko Jaurlaritza · Gobierno Vasco
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Udako festek utzitakoak...

4

Aurkibidea

4 **Uribe Kostako jaien argazki-albuma**

30 **Oscar Sanchez, 11/13 makro-epaiketako auzipetua: «Audientzia Nazionalak ez gaitu gu epaituko»**

35 **Gehigarria: Hezkuntza**

44 **Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak**

47 **Udako argazki-lehiaketaren emaitzak eta Getxophoto**

35

2019-2020 ikasturtera hezkuntza-eskaintza

Oscar Sanchez, 11/13ko auzipetua

ako

Umeentzako denbora-pasak bueltan dira: Hirukira Olgetan

Uribe Kostako abenturazaleek badute saririk

Jaien doinuari segika

Ekainetik irailera bitartean, askotariko ospakizunez gozatzeko aukera izan dugu uribekostarrok, herriz herri, auzoz auzo. Oraindino badago zer ospatu hainbat herritan udako festei amaiera emateko. Hala ere, horietan murgildu aurretik, orain arte bizi izandakoak, ikusitakoak eta gozatutakoak irudikatzeko eta etorkizunean gogoratzeko irudiak ekarri ditugu orriotara; adi ibili, ziur zure burua ikusiko duzula eta!

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIAK: **HODEI TORRES, UNAI BREA ETA IKER RINCON MORENO** ▶

ZORDEA

P

MONSTER
SKATE

Herritarren parte-hartzea ezinbestekoa da herrietako jaiak giro onean bizitzeko

Udalerrietako auzokideak dira jaietako protagonistak. Eurak barik, ezinezkoa izango litzateke jai-giroan murgiltzea eta gozatzea. Musika, kanta, dantza, lagun eta jolas artean ikusi ahal izan ditugu Uribe Kostako herritarrak pozik eta alai, bertakoen eta festetara hurbildutakoen gozamenerako.

PLAZA
3438

OGI DENDA · GOZOTEGIA

GETXOKO XVIII. KOMIKI AZOKA
XVIII SALÓN DEL CÓMIC DE GETXO
2019
URRIA 18,19,20 OCTUBRE
AREETAKO GELTOKIA PLAZA
ESTACIÓN DE LAS ARENAS
Ordutegia / Horario: 11:00-14:30 / 17:00-21:00
Igandea / Domingo: 11:00-14:30 / 17:00-20:00
JARDUERAK / ACTIVIDADES
Sinatze-txandak, hitzaldiak, erakusketa, fanzineak...
Firmas, charlas, exposicion, fanzines...
ROMO KULTUR ETXEA · Santa Eugenia Plaza, 1
www.salondelcomicdegetxo.net
SARRERA DOHAINIK
Edukiera bete arte.
ENTRADA GRATUITA
Hasta completar aforo.
Getxo
Getxo
Bizkaia
EL CORREO
metro bilbao
bbk

KONTZERTUA
Irailak 29 igandea
PABLO
MILANÉS
Muxikebarri Getxo
(Ereaga Aretoa)
19.30
Prezioa: 30 €
Sarrera salmenta:
Algortako Kultur Etxea
(94 491 40 80)
Romo Kultur Etxea
(94 466 00 22)
Getxo
Getxo

BEREZI
Haur moda eta lentzeria
(Algorta)
@berezialgorta
berezimoda@gmail.com
944604883
Telletxe 15 - GETXO

GetxoGaso
Urteko 365 egunetan gaude zabalik
·Garbiketa gunea
·Denda eta okindegia
·GnG tailerra
·Solaguren Jatetxea
944 301 500
GetxoGason Euskararekin bat!
Getxo eta Berango artean

iTXASGANE
prentsa • aldizkariak • goxokiak
Getxoko kirol portua · 944 915 321

OSABIDE
Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI
Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA
944 307 696

Herritarrak oinarria badira, kuadrillak dira udako festen bihotza

Udako jaien bizkarrezurretako bat izan ohi dira bertako kuadrillen arteko txapelketak. Herriz herri, berezkoak izaten diren probei aurre egin behar izaten diete neska-mutilek. Ikusgarriak, barregarriak, tentsiozkoak... Askotarikoak topa daitezke, den-denak festak dinamizatzeko eta inor ere axolagabe ez uzteko modukoak.

BZP

Coca-Cola
Coca-Cola
Coca-Cola

TXIBERRI

edantokia

Frontoi partikularra,
terraza estalia,
bokatak,
artisau-garagardoak,
eramateko tortila osoak
eta askoz ere gehiago.

Gustora egoteko behar duzun guztia!

Aita Gotzon kalea, 4 · URDULIZ · 946.760.715



hiruka *app*

Uribe Kostako informazio guztia eta agendarik osoena.

- Agenda
- Albisteak
- Argazkiak eta bideo albumak
- Geolokalizazioa
- SOS botoia

Deskargatu! Google Play App Store

OPEN
HOUSE
BILBAO
2019
OPEN BARAKALDO
OPEN GETXO
IRAILAK 28 ETA 29
ANIMA ZAITEZ !
www.openhousebilbao.org

Kalean eta lagunartean, bazkari ederrez gozatzeko txapelketak

Euskal Herriko udako jaien ezaugarri berezietako bat dira txapelketa gastronomikoak. Uribe Kostan ere bai. Kalean bildu eta lagunartean bazkariak prestatzeaz gainera, taldeen arteko norgehiagoka sanoak ere bizi izan ohi dira hemen, hala nola paellarik edo marmitakorik onena nork egiten duen jakiteko.

LIZATEAREN

ZERBITZUAK
OBRAS

Gorliz
GASTRONOMIKOA

BERBOTS ERANDION EUSKARAZ TALDEAK

DINAMIZATZAILE BAT behar du

Erandion "Euskaraldia" ekimena dinamizatzeko

LAN ESKAINTZA

EZINBESTEKO BALDINTZAK

- Erandio eta eskualdea ezagutzea
- Euskara maila egokia
- Euskalgintzaren ezagutza izatea
- Euskaltzalea izatea
- Harremanetarako gaitasuna

Erandion euskararen aldeko jarrerak aktibatzeko

2019ko urritik aurrera, 18 hilabetez

(herriko elkarteak, kolektiboak, enpresak, langileak)

Informazioa:
berbots@gmail.com

Curriculum-ak aurkezteko azken eguna:
Irailaren 22a

EUSKARA ROCK

NOR NORI NORK
LOS BALDINTZAK
ZITZAIZKIDAN
BERBAIZU

MATRIKULA IRAILEAN

"Heavy"a ematen du baina
ez da hainbesterako...

Getxoko euskaltegietan euskara
hobetzen eta erabiltzen
lagunduko dizugu! Etorri!

www.getxo.eus/euskara

Getxo · Bizkaia · Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco · egizul · Getxo · Lauaxeta · bai&by

Urtero legez, irudimenik ez da falta kuadrillen mozorroak egiteko orduan

Jai koloretsuak dira Uribe Kostakoak. Askotariko mozorroak ikusi ahal izan dira herriz herri, fantasiazkoak, epikoak, umoretsuak, landuak, koreografia bategaz lagundutakoak... Mundu ezezagunetara bidaiatzeko aukera paregabea eskaini dute aurten ere eskualdeko neska-mutil gazteek, baita ez hain gazteek ere.

MUGA BARIK

ETXETXU BERRIA
Beineken
EPULUM
CRIANZA
SAN LORENTZO
2019

San Nikolas
IKASTOLA
KALITATEA**BIKAINTASUNA**INNOVA
CIÓN**CALIDAD**DESDE1963**EXCELEN**
CIABERRIKUNTZA**IDIOMAS**SOCIALS
CIENCESDBH**GUARDERÍA**JANTOKIA
KIROLAKDANTZA**AUZOLANKOOPE**
RATIBOAMUSIKA**BERTSOLARITZA**
www.sanikolas.eus || 94 430 54 78 || Areneazpi, 15 - Algorta

Iñaki Bitxitegia
Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala
Villamonte plaza 3
94 430 23 45
Algorta
Telletxe 1
94 460 27 41

aldai
Tapiztegia
Dekorazioa
Erakusketa
Tailerrak
Basagoiti etorbidea 32
48990 Algorta
94 460 90 31
Aldai

Ongi etorri
2019-2020 ikasturte berrira
ANDER DEVNA
ikastola
www.anderdeunaikastola.eus
info@anderdeunaikastola.eus
Gatzarriñe, 47
48600 SOPELA
946 76 02 66
ikastolenelkartea

TABERNA
Ostegun, bariku
eta zapatuetan
20:00etatik-23:00ak arte
pizza goxo-goxoak!
...eta gero jai giroa!
SANTA EUGENIA KALEA, 13
ERROMO
Uribe Kostako gazteria saltsan!!

JUAN MARI
Haragtegia
Urdaitegia
Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxez etxeko zerbitzua
Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

Oscar Sanchez Setién 11/13 makroepaiketako auzipetua

«Audientzia Nazionalak ez gaitu gu epaituko»

«ETAren espetxe frontea» osatzea leporatuta, 47 euskal herritar epaituko dituzte Espainiako Audientzia Nazionalean irailaren 16tik aurrera, Oscar Sanchez abokatu itzubaltzetarra barne. Fiskaltzak 13 urte eta erdiko espetxe-zigorra eta 4.800 euroko isuna eskatu du berarentzat. Auzia hasi aurretik, manifestazio jendetsua egingo dute irailaren 14an Bilbon, 17:30etik aurrera, La Casillatik abiatuta.

TESTUAK: **IKER RINCON MORENO** ARGAZKIA: **HODEI TORRES**

Zer da 11/13 sumarioan Espainiako Audientzia Nazionalak epaituko duena? Guardia Zibilak Herrira erakundearen mahai nazionala deritzona osatzen zuten kideen atxiloketagaz hasten den sumarioa da. Une oso adierazgarri batean eman ziren atxiloketak; Europako Giza Eskubideen Tribunalak 197/2006 sententziaren edo Parot Doktrinaren ebazmena eman aurretik, hain zuzen ere. Testuinguru horretan, Herriraren kontrako operazio bat izan zitekeela uste genuen arren, gerora ikusi genuen aurrediseinatutako estrategia baten pauso bat besterik ez zela: euskal preso politikoen aldeko mugimendu oso bat deuseztatzea.

Hasiera batean Herrirako kideak atxilotu zituzten; hala ere, gerora, abokatuei esker, jakin ahal izan genuen dena ez zela hor bukatzen. Espainiako Estatuak gura izan duena da espetxe-fronte bat irudikatzea, ETAk aktibo zegoen koiuntura zaharrari lotuta. Hala, gure atxiloketen ondoren, abokatuak, presoak laguntzeko taldea, Etxerat elkarteko senideak eta presoen alde lanean zebiltzan hainbat pertsona atxilotu zituzten.

Zergatik uste duzu zabaldu duela espainiar Estatuak makroepaiketa hori? Lehen esan bezala, Parot Doktrinaren ebazpenari erantzun bat emateko izan dela uste dut. Bestalde, EPPK-k aurrerapausoak ematea ekiditea eta ETAren eta gatazkaren konponbidea baldintzatzea ere izan dute helburu.

Batzuetan, badirudi Estatuak nahiago izan duela ETA aktibo jarraitzea, maila baxuago batean bada ere.

Irailaren 16an espainiar Estatuko Auzitegi Nazionalean epaituko zaituzte beste 46 pertsonagaz batera. Zer egozten dizute zuri? Hasiera batean, niri hiru delitu egotzi zizkidaten: talde armatuko kide izatea; terrorismoaren apologia jarraitua egitea, Herrira sortu zenetik egindako ongietorri denak antolatu genituelakoan (121); eta terrorismoaren finantzaketa.

Gerora, langileen eskubideen kontrako delitua ere egotzi ziguten. Fiskaltzaren arabera, Herriran lan egiten zuten boluntarioek Gizarte Segurantzan alta emanda egon behar zuten. Hala ere, gerora hori baztertu egin zuten. Nire kasuan, gainera, Guardia Zibilaren aurrean deklaratu ondoren, terrorismoaren finantzaketaren delitua kendu zidaten. Aldiz, beste lau kideri azken hori egotzi zieten, zazpi urteko kartzela-zigor eskaera gehituz.

Zelan hartu duzu zuk hori dena? Abokatua naizen heinean, ohituta nago epaiketen erritmora, eta badakit zelan funtzionatzen duen honek denak. Ez nau ustekabean harrapatu. Heldu beharreko zerbait da; aurreikusita genuen. Hala ere, bada harritzen nauen zerbait: egiten zaizkigun eskaerak. Egozten zaizkigun delituetarako Zigor Kodean jasotzen den gehieneko zigorra eskatu digute. Eskaera altuak espero nituen, baina ez horrenbestekoak.

Euskal preso politikoen eskubideen alde lan egiteagatik epaituko zaituztete. Zentzuzkoa ikusten duzu hori? Horixe da honi denari ikusten diodan gakoa. Mugimendu batek bere helburuetako batzuk lortzen dituenean, Estatuak erantzun ohi du. Badirudi bizi ditugun askatasunak, hau da, adierazpen-askatasuna, mobilizatzeko eskubidea eta elkartzeko eskubidea bermatu egiten direla, baina Estatua kinka larrian jartzen ez dugun bitartean bakarrik. Hori lortzen denean, Estatuak hainbat mekanismo martxan jartzen ditu, galarazteko. Adibidez, Katalunian demokraziaz eta parte hartzeko eskubideaz berba egiten

Egotzitako delituak
Erakunde terroristan parte hartzea eta terrorismoa jarraian goratzea.

Espetxe-zigor eskaera
13 urte eta sei hilabeteko espetxe zigorra delitu birengatik. 12 urteko zaintzapeko askatasuna.

Inhabilitazio-eskaerak
Berezia 12 urterako, lan edo kargu publikorako, eta osoa espetxealdirako eta 10 urte gehiagorako. Gainera, espetxe-zigorra baino 10 urte gehiagoko inhabilitazioa, terrorismoa jarraian goratzeagatik.

Isuna
Egunean 10 euroko isuna 16 hilabetez. 4.800 euro, alegia.

Joan den irailaren 6an Oscar Sanchez eta beste 46 auzipetuen aldeko eskualdeko manifestazioa egin zuten Itzubaltzeta/Romon. UNAI BREA

denean, praktikan jartzeko momentuan espainiar Estatuak hori dena blokeatu eta jarduna geldiarazten du.

Halakoa ere eman da gure kasuan. Alde batetik, Europako Giza Eskubideen Tribunalak Parot Doktrina bertan behera uztea agindu zuenean, espainiar Estatuak ez zuen porrot hori onartu gura izan. Herriran geundenok lan handia egin genuen doktrina hori bertan behera uzteko, horren bitartez espainiar Estatuak preso askoren oinarrizko eskubideak urratzen zituelako. Era berean, preso horiek gatazka politiko bati lotutakoak direla, modu bidegabe batean espetxeratuta daudela eta horiek askatzea aldarrikatu izan dugu askotan. Espainiar Estatuan, baina, badago sektore bat horren denaren kontra dagoena, eta bidezko konponbide bat lortzea ekidin gura duena. Hala ere, jende askoren lanari esker, eta Europako tribunal horren ebazpenaren ondorioz, lortu egin zen pertsona asko libre gelditzea. Uste dut Estatuak ez zuela ongi jasan kolpe hori, ez zuen onartu gura izan, eta errepresioaren bidezko erantzuna eman zuen.

Bestalde, ezin dugu ahaztu gure lan egiteko moldeak berriak zirela, eta aurrera egin ahal izan bagenu, balitekeela nolabaiteko konponbideak lortu izana euskal preso politikoen eskubideen arloan. Egia da Euskal Preso Politikoen Kolektiboak eman beharreko aurrerapausoen inguruko hausnarketa abiatuta zuela aspaldi, ETA disolbatu aurretik ere. Era berean, konfrontazioan oinarritutako garaia atzean utzi gura genuen, baina badirudi, nonbait Estatua egoera horretan erosoago sentitzen zela. Guk, gure aldetik, aurrerapausoak lortu gura genituen mobilizazio jendetsuen bitartez. Izan ere, lortu egin genuen euskal gizartearen zati handi bat gure aldarrikapenakaz bat etortzea, eta hori ez zitzaion batere gustatu espainiar Estatuari. Egoera horretan, gure lana bertan behera gelditzen saiatu zen, ildo horretan lan egitea eragozteko.

Herrira taldeko kide izateagatik atxilotu zintuzten. Zein zen zure egitekoa bertan? Herriraren edo Amnistiaren aldeko talde berriaren nazioarteko taldearen arduraduna izatea leporatzen didate niri. Guardia Zibilak konglomeratu handi bat osatu du gure atxiloketa denak justifikatu ahal izateko. Hala, niri hori leporatzen didate, nazioartean lan egin dudalakoan. Nire kontra dituzten froga-elementu bakarrak publiko egin ditugun bilerak dira; ez dago inolako elementu arrarorik horretan. Nire kontra dituzten froga bakarrak prentsan agertutakoak edo hedabideek dioten hori baieztatzen duten Guardia Zibilaren txostenak dira, besterik ez.

Zein zen Herriraren zeregina garai horretan? Nik esan ohi dut Espainiako Barne Ministerioak oso ondo definitu zuela atxilotu gintuzten unean; esan zuten mobilizatzeko ahalmen gehien zuen Euskal Herriko organismoa desartikulatu zutela. Eta, beste gauza askoren artean, Herrira horixe zen: espetxe-politikaren kontra zegoen askotariko jendea batzeko eremua. Izan ere, ideologia ezberdinetako gizon-emakumeak batzen zituen erakundea zen Herrira; bere jarduna guztiz gardena zen, edonorentzat irisgarria. Euskal preso politikoek jasaten duten eskubideen urraketa modu sozial batean salatzeko taldea zen Herrira.

Zein da gaur egun euskal preso politikoen egoera espainiar eta frantziar estatuetako kartzeletan? Gaur egun 250 euskal preso ditugu espainiar eta frantziar estatuetan sakabanatuta. Bi egoeratan daude horiek denak. Alde batetik, Frantziako Gobernuak borondate ona agertu du dispertsioari amaiera emateko; hala, modu batean edo bestean, Espainiako eta Frantziako gobernuen artean adostutako espetxe-politika haustea lortu dugu. Bestalde, Espainiakoak guztiz itxi ditu EPPK-ko kideek etxera gerturatzeko eta graduak aldatzeko aukerak. Hasiera batean, bazirudien aurrerapausoak egongo zirela arlo horretan, baina azkenean ez da horrela izan. Badago 100 kilometro gerturatu duten baten bat, baina oraindino etxetik 600 kilometrora dago espetxeratuta.

Zergatik uste duzu Espainiako Gobernuak ez duela aurrerapausorik eman gura euskal gatazkaren konponbidean? Alde batetik, nik uste dut eroso sentitzen dela egoera errepresibo horretan. Euskal preso politikoen egoerak eztabaida piztu du euskal gizartean, baina Espainiako Gobernuak ez du horretan sartu gura. Horren eraginetako bat dira barne-mailan dauzkaten presioak, aurrera egitea galarazten dietena. Espainiako eskuinak eta ultraeskuinak oso hertsiak dira gai horretan. PSOEk eta PPk ere joera hori hauspotu dute aurrera eramandako estatu-politi-

337.462 €

Epaiketari aurre egiteko auzipetu denen gastuen zenbatekoa da hori: gastu juridikoa (abokatuak eta prokuradoreak), 236.440 euro; garraioa (auziperatuak, abokatuak, lekukoak), 28.950 euro; Madrilen egotea (auziperatuak eta lekukoak), 72.072 euro.

38

webgune, 32 Twitter kontu eta 125 Facebook kontu itxi dituzte 2013ko atxiloketen ondoren, 11/13 sumarioaren harira.

47

lagun auzipetu dituzte 11/13 sumarioan; denak Herrirako, Jaiki Hadiko eta Etxerateko kideak; bitartekariak; eta abokatuak.

601

urteko espetxe-zigor eskaera egin du Fiskaltzak auzipetu denen artean.

ketan. Hala, hau Gobernuaz harago doa; konglomeratu handi bat dago egoera konpontzea ekiditen duena.

Bestalde, ez dakit zein puntutaraino dagoen horretarako interesik edo ez. Euskal Herrian badago egoera aldatzeko interesa eta kontzientzia duen ordezkaritza zabal bat; Espainian, aldiz, badirudi ezetz. Hortaz, horretan eragina izan behar dugu.

Zer egin beharko litzateke egoera hori hobetzeko? Azken finean, eskatzen dena politikatik at dagoen zerbait da, oinarrizko eskubideen ingurukoa, hain zuzen ere. Beste modu batean esanda, salbuespen-egoera batean oinarritzen ez den espetxe-politika bat martxan jartzea oso garrantzitsua da presoen egunerokotasunerako, eta horixe da eskatzen ari garena.

Bestalde, dispertsioa amaitzea, gaixo dauden presoak aske uztea... Hori dena ere oso garrantzitsua da. Baina badaude aldatu beharreko beste kontu batzuk, hala nola kondenen zenbaketa bikoitzak bertan behera uztea. Horren ondorioz, frantziar Estatuan zigorra bete duten hainbat euskal herritar bigarren kondena bat betetzen dabiltza gaur egun espainiar Estatuko kartzeletan. Gaixo dauden presoak askatze hutsak arnasgune handi bat eragingo luke jende askoren artean. Urtez urte espetxean hil den jendea ikusi behar izan dugu, eta hori ez da bidezkoa. Era berean, dispertsioa amaitzea eta graduen aldaketa bermatzea beharrezkoa dela uste dugu. Esan bezala, eskatzen duguna oinarrizko eskubideen barruan kokatzen da, logikoa da eta euskal gizartearen zati handi batek eskatzen duenarekin bat dator.

Dispertsioak, gainera, preso daudenen sendiei ere eragiten diete modu zuzenean... Familiei eta defentsarako eskubideari baita ere. Astez aste, errepidea hartu eta ehunaka kilometro egin behar izaten dituzte askok, euren bizitza jokoan jarriz, 40 minutuko bisita bat egin ahal izateko. Preso dagoena zigor bat betetzen dabil, baina horrek ez luke eraginik izan behar bere inguruko jendearengan.

Lehen, ETA jardunean zegoenean, horri aurre egiteko neurri bat ei zen dispertsioa. Gaur egun, talde hori existitzen ez den arren, dispertsioa mantentzen dute mendeku gisa. Euskal presoen kolektiboak Zaballako espetxera gerturatzeko bidea proposatu zuen, eta talde horretako kide askok norbanako eskaerak egin dituzte etxetik hurbil zigorra betetzeko. Hala ere, den-denek ezezkoa jaso dute, inolako argudiorik gabe. Diotenez, preso denek eskakizun berdina egiten dute, baina ez da horrela. Preso bakoitzak bere egoera pertsonalari eta beharrei egokitutako eskaera egin du; baina Espainiako Gobernuak erantzun berdina egin die denei: ezezkoa. Horrek ez du inolako zentzurik.

Zein da zehazki EPPK-k proposatutako bide hori? Frantziar Estatuan espetxeratuta dauden presoak Euskal Herritik gertuen dauden bi kartzeletara gerturatzeko eskaera egin zuten, hau da, Lannemezan eta Mont-de-Marsanekoetara. Frantziako Gobernuak eskaera hori onartu zien, eta apurka-apurka preso asko gerturatzen ari dira. Espainiar Estatuan ere bide berdina egin zitekeela pentsatuta, norbanako eskaerak egitea proposatu zuten, espetxeetako legediaren barruan dauden mekanismoak baliatuta. Hala ere, ikusi ahal izan dugunez, ia-ia ez du ezertarako balio izan bide horrek.

Zein da Espainiako Gobernuaren aitzakia eskaera horiek denak ukatzeko? Besteak beste, arriskutsuak izan daitezkeen pertsonak direla eta horiek manipulatzen dituen antolakunderen bat egon daitekeela oraindino. Erantzun denak berdin-berdinak dira, generikoak. Espetxe-politika berdina ezartzen ari dira, modu kolektiboan.

11/13 sumariora bueltatuta berriro, zelakoa izan zen atxilotu zintuzten eguna? Oso arraroa; polizia sekretuaren presentzia handia zen bilera egin genuen lekuaren ondoko plazan. Uste genuen segimendu-operatibo bat besterik ez zela, Guardia Zibilaren egunerokotasunaren baitakoa. Hala ere, gerora ikusi genuen ezetz, talde armatuaren kide izatearen kontrako operazioa zen. 2013an gertatu zen hori, baina leporatzen dizkigutenak 2012tik aurrerakoak dira. Gogoratu beharra dago ETAk 2011n eten zuela bere jarduera, eta horrek inflexio-puntu bat eragin zuela errealitate politikoan. Garrantzitsua da hori gogoan izatea, gure kontrako eskaera fiskalak ETAk borroka armatua eten eta ondorengoak direlako.

Zenbat denbora eman zenuen atxilotuta? Hiru gau, denera. Hernanin atxilotu ninduten; goizetik gauera Herriraren bulegoan egon nintzen atxikita. Ondoren, furgoi batean sartu eta Intxaurrondoko kuartelera eraman gintuzten, eta, bertatik, traslado-autobus batean Tres Cantoseko (Madril) polizia-etxera. Bertan bi egun gehiago eman genituen atxilotuta epailearen aurrean deklaratu aurretik.

Sei urte igaro dira ordutik; zelan bizi izan duzu denbora hori? Egia esanda, argi nuen prozesua luzea izango zela. Gainera, mota honetako sumario handietan aitzakia perfektua dute prozesuak nahita ez luzarazteko. Hala ere, kuriosoa da Kataluniako *Procés*ean modu askoz ere arinagoan abiatu zutela auzia. Hori ere helburu politiko baten ondoriozkoa da. Gure kasuan, uste dut sumarioa horrenbeste denboraz ez aurrera ez atzera egon izanak erakusten duela ez dagoela gatazka hori konpontzeko lehentasunik. Bilatzen dena da aktibo egon gaitezkeenak desaktibatzea, mugimendua paralizatuta mantentzeko sumarioaren zain gauden bitartean.

Arlo pertsonalean, bestalde, argi dago bizimoduan eragina duela, dena hankaz gora jartzen dizu horrela bizitzeak.

Testuinguru politiko berri honetan, ETA deseginda dagoela, zer-zelako eragina izan zuten gizartean atxiloketa horiek? Dagoeneko zaila da harritzea euskal gizartearen erantzunaz, askotan gertatu izan den zerbait delako hori. Hala ere, niri oilo-ipurdia jartzen zait emandako erantzuna gogorarazten dudanean. Atxilotu ninduten, Hernanin, apurka-apurka jendea batzen hasi zen kalean, gu aska gintzatela oihukatzen. Une horretan jendeak izango zuen erantzuna aurreikusi genuen, eta ni horrekin gelditzen naiz. Guk ez dugu inolako justiziarik espero Espainiako Audientzia Nazionalaren partetik, gu kondenatu edo absolbitu arren. Epaituko gaituzte, bai, baina bere iritziak ez digu balio. Guri inporta zaiguna da euskal gizarteak uste duena.

Zelan egingo diozue aurre irailaren 16an hasiko den epaiketari? Justiziarik lortuko ez dugulako ideiarekin egingo diogu aurre. Hala, gure helburua da euskal gizartea eta, batez ere, euskal presoen inguruko gaiari konponbidea ematea. Logika horretatik ekingo diogu epaiketari.

Bilatzen duguna da epaiketa horren ebazpenak orain arte sortutako mugimendu horri ahalik eta modu txikienean eragitea. Gure helburu nagusia da, gainera, euskal gizartea konponbide horretan parte hartzera gonbidatzea, baita euskal presoen eskubideen defentsan aktibatzea ere. Audientzia Nazionalari baino, gure epaiketa Euskal Herrira begirakoa da. Horixe da gure helburua.

Udan zehar zurekiko eta beste 46 lagunekiko elkartasuna adierazteko ekimenak egin izan dira herriz herri. Zelan hartu dituzu keinu horiek denak? Alde batetik, maila pertsonalean gainezka egiten dit. Ez nago ohituta eztabaida politikoaren eta sozialaren erdigunea izatera, ez Uribe Kostan ezta inon ere. Nik ez dut hori bilatu, etorri zaidan zerbait da. Hala ere, asko eskertzen ditut keinu horiek denak.

Arreta deitu dit horrek denak, eta aurkako jarrerak ere eragin dizkidate. Alde batetik, elkartasun hori dena izugarria da, baina pertsonalki bizi duzun arazo baten erdi-erdian zaude. Hala ere, niretzat pozgarriena da, berbarako, Itzubaltzeta/Romon gertatutakoa. Ni bertakoa izanda, askotariko borondateak batzea lortu da helburu berdin bat lortzeko: gure kontrako auzia salatzea eta gizarte justuago bat lortzearen alde borrokan jartzea, zentzurik zabalenean. Nik uste dut egiten ari den lan dena, irudi batean oinarrituta dagoen arren, askoz ere harago doala, jende asko dagoelako gauza bera esateko: aski da! ◂

47 auzipetuak

Bitartekari-taldekoak:
Jose Luis Campo
Asier Aranguren
Aitziber Sagarminaga
Egoitz Lopez de Lacalle
Aintzane Orkolaga
Jose Miguel Almandoz

Herriragaz lotutakoak:
Oskar Sanchez
Fran Balda
Amaia Esnal
Eneko Ibarguren
Ekain Zubizarreta
Roberto Noval
Ibon Meñika
Jose Antonio Fernandez
Gorka Gonzalez
Jon Garai
Sergio Labaien
Jose Manuel Ugartemendia
Eneko Villegas
Nagore Garcia
Jesus Mari Aldunberri
Beñat Zarrabeitia
Ane Zelaia
Imanol Karrera
Jon Mindegiaga
Jabier Carballido
Nagore San Martin
Emilie Martin

Jaiki Hadiko kideak:
Fernando Arburua
Oihana Barrios

Etxerat elkartekoak:
Izaskun Abaigar
Nagore Lopez de Luzuriaga

Bestelako abokatuak:
Arantza Zulueta
Jon Enparantza
Alfonso Zenon
Kepa Mantzisidor
Eukene Jauregi
Ane Ituiño
Aier Larrarte
Ainhoa Baglietto
Arantza Aparicio
Onintza Ostolaza
Haizea Ziluaga
Amaia Izko
Jaione Karrera
Atxarte Salvador
Naia Zuriarrain (abokatuen bulegoko langilea)

Sopela **Kosta Fest** 2019

Irailak 19-22

Hesian eta El Canijo de Jerez, jaialdiko buru

Musika, filmak...

Irailak 19, eguena

Surfaren historia Euskadin argazki-erakusketa inauguratuko dute Kurtzio Kultur Etxean. Iluntzean **surfaren gaineko filmak** proiektatuko dituzte Udaletxeko plazan.

Irailak 20, barikua

Udaletxeko plazan **Hesian** taldeak joko du; haien aurretik, **Mississippi Queen and The Wet Dogs** bilbotarrek, Zaragozako **Tachenko** laukoteak, Usurbilgo **Natali** taldeak eta **Nerabe** pop-talde donostiarrak.

Irailak 21, zapatua

Andaluziako **El Canijo de Jerez** kantariak emango du kontzertu nagusia. Gainera, **Cooper** (pop-mod), **Nøgen** donostiarren folk-popa, **Larry Bird** Bilboko laukotea eta **Lukiek** taldea arituko dira.

Irailak 22, domeka

Skate-masterclass bat eskainiko du Espainiako txapeldun izandako **Silvia Serret** *skater* profesional katalanak, 8 urtetik gorako emakumeentzat.

Ekimen nabarmenenak

Surf-txapelketak antolatuko ditu EHSFk: elkarteen artekoa, Euskal Surf Zirkuitua, Euskal Herrikoa, beteranoena eta Euskal Bodyboard Zirkuitua.

Kayak-surfeko txapelketa egingo dute Barrika Piragua Taldeak eta Bizkaiko Piraguismo Federazioak.

Lehenengoz, **Eusko Riders skate-txapelketa** egingo dute, Euskal Herriko Irristaketa Federazioaren Skateborad Batzordeak antolatuta. Euskadiko skateboard-zirkuituko proba.

Parapente-hegaldiak eskainiko dituzte Parapente Bizkaiak eta Airetik taldeak.

Instagram bidezko argazki-lehiaketa egingo dute jaialdiak iraungo duen lau egunetan, Uribekosta Fotografía elkarteak antolatuta. Parte hartzeko oinarriak Kosta Festen webgunean ikus daitezke.

Horrez gainera, surf-tailerrak, Sopelako flyschera bisita gidatuak, itsasoaren gaineko kanten kalez kaleko erakustaldia eta garagardoaren eta gilden festa eta umeentzako hamaika tailer egongo dira, besteak beste. Interesdunek hilaren 17a baino lehen izena eman behar dute, jaialdiaren wegbunean bertan.

Jaialdi jasangarria

Kosta Festek bat egin du IHOBE sozietate publikoak sustatzen duen **Erronka Garbia** ekimenagaz. Jaialdiak ingurumenean duen inpaktua ahalik eta txikiena izatea da helburua. Besteak beste, plastiko gutxiago erabiltzeko konpromisoa hartu dute; edalontzi biodegradagarriak emango dituzte, edo berriro erabil daitezkeenak.

SOPELA KOSTA FEST 2019

info+: www.sopelakostafest.com

Hezkuntza

hiruka
Gehigarri berezia

150. zenbakia
2019ko iraila

Ikasteko aukera bete udagoien

Badoa uda, eta datozen hilabeteetan, behartuta edo gurariz, aisialdiaren zati bat jakintzaz asetzera bideratuko dute askok: musika, hizkuntzak... Hemen duzu horretarako akademia-eskaintzarik onena.

Euskararen ezagutzak gora egi

Eustat Euskal Estatistika Erakundeak jasotako azken datuen arabera, 165.285 pertsonak zituzten urte bi edo gehiago Uribe Kostan 2016an, 25 urte lehenago baino 16.483 gizon-emakume gehiago. Denbora tarte horretan, euskaldunen kopuruak etengabe egin du gora, bikoiztu arte. Hala, 2016an 59.853 (%36,2) lagunek euskaraz ondo ulertu eta egiten zuten berba. 37.623 (%22,8) ia euskaldunak direla dio Eustatek, euskaraz berba egiteko zailtasunak izan arren ondo ulertzen dutelako. Gainerako 67.809 (%41) biztanleak erdaldunak dira. Hortaz, datu horiek kontuan hartuta, esan genezake euskararen ezagutza Uribe Kostan %59koa dela. Hizkuntza ulertzeak, baina, ez du esan gura erabili egiten dutenik. 2016ko datuen arabera, eskualdeko biztanleria osoaren (169.750 pertsona) %5,3k (9.036) besterik ez du euskara etxeko hizkuntza bakartzat, eta %9,4k (15.943) erabiltzen ditu etxean euskara eta gaztelania. Kaleko erabilerari dagokionez, 2006koak dira ezagutzen diren Uribe Kostako azken datuak; Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketaren arabera, euskaraz aritzen da kalean biztanleriaren %9,3, eta erdal hizkuntza batean gainontzekoa.

Azken urteotan Uribe Kostako Mankomunitateak, udalek, hainbat elkartek eta abarrek egindako lanak euskararen ezagutza eta erabilera hauspotu dute urtez urte; hala ere, oraindino bide handia dago egiteke euskararen presentzia areagotzeko eskualdeko kaleetan. Zeregin horretarako, gure hizkuntza ikasteko izena emateko epea zabaldu dute euskaltegiek orain; horren erabilerarako, aldiz, askotariko ekimenak egongo dira aukeran urtean zehar, hala nola Berbalagunak.

Euskaraz dakiten herritarrak, Uribe Kostan

ITURRIA: EUSTAT



n du, erabilerak ez hainbeste

Herritar euskaldunen kopurua (ehunekoetan), herriz herri

ITURRIA: EUSTAT



BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA
Zabalbide, 26. 48006 BILBO • 944 320 445 • urtxintxa@urtxintxaeskola.eus • www.urtxintxaeskola.eus

Balioak oinarri dituen eskaintza

Bizkaiko Urtxintxa Eskolak 2019-2020 ikasturterako eskaintza zabala prestatu du. Betiko produktuakaz, balioakaz, kozinatutako ikastaroak dituzte menuan.

Parte-hartzezko metodologia hausnartzaile eta kritikoa erabiliz egiten dute trebakuntza Urtxintxa Eskolan.

Urtxintxa Eskolan 33 urte daroatzate hainbat baliotan oinarritutako ikastaroak antolatzen. Aurten ere feminismoan, inklusioan, umeen parte-hartzean, aniztasun funtzionalean, euskaran eta aisialdian trebatzeko aukera eskainiko dute, besteak beste. Hezitzaile, ikasle, familia... Hartzaile ugari dituzte ikastarook. Norbanako zein taldeei begirakoak dira, eta multzo bitan banatzen dituzte: iraupen luzekoak eta iraupen laburrekoak. Iraupen luzekoen artean daude Jolas Guneen Eraldaketa: Heziketa Berdea eta Ikuspegi Feministaren Arrakalak; Hezkidetzan Aditua; eta begirale- zein zuzendari-ikastaroak. Azken bi horiek Eusko Jaurlaritzak emandako titulu ofizialak dira.

Herri eta hirien antolaketak komunitatearekiko harremanean eta umeen garapenean duen eraginaz ohartuta sortu dute Jolas Guneen Eraldaketa: Heziketa Berdea eta Ikuspegi Feministaren ikastaroa. Umeen munduaren inguruan dabiltzan denentzat izango da, egonezinak elkarbanatu eta eraldaketa-prozesuak irudikatzeko asmoz. Adituen laguntza izango dute, eta Hiritik At kooperatibagaz batera emango dute.

Beste ikastaro interesgarri bat Indarkeriaren Arrakalak izango da. Eraikiz kolektiboagaz batera, hezkuntzan dabiltzanei indarkeria-kasuen aurrean agertzen zaizkien kezkak identifikatu eta elkarbanatzeko eremua eratuko dute, esku-hartze sozialaren eta feministaren perspektibatik baliabide pedagogikoak sortzeko.

> Hizlari trebatuak eta koordinatzaile konprometituak dira eskolaren altxorra.

Ikastaro laburrak, berriz, honakoak dira: Aniztasun Funtzionala eta Sexualitatea; Irakurketa Erraza; Gazteak Ere, Euskaraz!; eta Maskulinitatea(k).

Landa doktorea, 6. 48600 SOPELA • 946 763 012 • info@hamiltonidiomas.com • www.hamiltonidiomas.com

Ondo pasatuz ingelesa ikasi

Datorren urrian hasiko da berriro English Saturday Play-School ingeles-kurtsoa, 1993tik Hamiton Idiomas-ek Algortako San Nikolas ikastolan umeentzat antolatutakoa.

Urritik maiatzera arteko zapatuetan garatzen da English Saturday Play-School programa, 10:30etik 13:30era. Umeek ingelesa landu ahala ondo pasatzea da asmoa. Hori lortzeko, une guztietan erabiltzen duten hizkuntza ingelesa da, eta umeak erabil dezaten ere animatzen dituzte, lehenengo egunetik gauzak ingelesez eskatzen irakatsiz. Irakasleek ingelesez berba egiten dute elkarregaz, umeek ikus dezaten ingelesa komunikatzeko modu bat dela, eta ez «ikasgelan bakarrik lantzen den hizkuntza». Taldeak adinaren eta ingeles-mailaren arabera osatzen dituzte, talde bakoitzean hamar ikasle inguru ipiniz gehienez. Metodologia abangoardista eta berriztatzailea erabiltzen dute, ekintzak umeen heldutasunari eta ingeles-mailari egokituz. Britainiar kulturan ospatzen diren jai batzuk eurek ere ospatzen dituzte: Halloween, Gabonak, *St. Valentine´s*, Ihauteriak, Aste Santuan *Easter Eggs and Bunny*... Hiruhileko bakoitzaren amaieran ume bakoitzari aurrerapen-txosten bat ematen diote. Hor, landutako edukiaz aparte, irakasleek umearen bilakabidea baloratzen dute, bai gelan eta orokorrean programan izan duten integrazioari dagokionez, bai ingeles-mailaren alorrean egindako aurrerapausoei dagokienez.

Adinaren eta ingeles-mailaren arabera antolatzen dituzte taldeak, bakoitzean gehienez hamar ikasle ipiniz.

Metodologia berritzailea erabiltzen dute programan.

Azken egunean «*Good-bye Party*» bat ospatzen dute, zeinera umeek neba-arrebak edo lagunen bat gonbida dezaketen. Kurtsoko lehen egunean egutegia bidaltzen diete gurasoei, zapatu bakoitzean zer egingo duten jakin dezaten. Gurasoak ondo hartuak dira umeakaz zelan egiten den lana ikusi gura badute; gainera, Facebook-en egindako ekintzak publikatu ohi dituzte (*English Summer Play-School* web orrian).

REAL ENGLISH GETXO

Biotz Alai Abesbatzaren plaza. Algortako Etorbidea, 59, atzealdea. 48991 GETXO • 648 257 572 • realenglishgetxo@gmail.com

Ingelesa ikasteko beste modu bat

Real Englishek bigarren ikasturteari ekingo dio Algortan. Haien ustez, hizkuntza bat ikasteko cocktail perfektua zorroztasun akademikoa eta olgeta batzen dituena da.

Denbora luzea daroa hizkuntzen irakaskuntzaren alorrean Carlos Rey-Surman akademiako sustatzaileak.

Bestelako ingeles-akademia da Real English, Carlos Rey-Surman britainiarrak zuzendua. Euskal Herrian hamabost urtetik gora daroatza Carlosek (Charles). Cambridgeko Unibertsitatean lizentziatu zen, eta hamarkada bat baino gehiago egin du hizkuntzen formazioan. *Bestelako emaitzak gura badituzu, egizu gauzak desberdin* da Real Englishen eslogana, ahozko komunikazioaz duten berezko ikuspegia islatu gura duena; berba egiterakoan ikasleek konfiantza handiagoa izatea da euren lehentasuna.

Euren ikasle denek ezaugarri komuna dute: ingelesa erabiltzeko beharra dute. Hizkuntzaren ahozko transmisioa eta automatizazioa funtsezkoak dira modu eraginkorrean irakasteko, diotenez. Aditz-zerrendak dituzten azterketak iraganeko kontua dira Real Englishen. Estresa eta azterketak bata bestearen ondotik dakartzan irakaskuntza-eredu tradizionaletik aldendu dira, ikasle bakoitzak bere bidea egin behar duelakoan. «Ez dugu metodo magikorik, baina bai inplikazioa, eta bokazioa». Horri esker, euren akademia Bilbo Handiko berritzaile, atipiko eta arrakastatsuenetakoa dela diote.

Cambridgeko azterketa ofizialak garrantzitsuak dira, eta euren ikasleen oso portzentaje handi batek gainditzen ditu. Irakasleek buru-belarri egiten dute lan ikasleek ezin hobeto ezagut ditzaten First, Advanced eta Proficiency azterketen xehetasunak. Gainera, nork bere aldetik ikasi ahal izateko materiala dute. Azterketa ofizialetara aurkezten diren lehenengo 25 ikasleei doako ikastaro trinkoa eskaintzen diete, ekaineko goizetan. Eta eskolan arazoak dituztenentzat doako laguntza-zerbitzua dute.

> Ikasleek berba egiteko konfiantza izatea da euren lehentasuna.

GETXOKO
UDAL EUSKALTEGIA
2019-2020 ikasturtea
Eskaintza eta ordutegi zabala

Maila guztiak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
Romoko Kultur Etxean (RKE)
Arbel digitalak
OHIKO TALDEAK: 10 eskola-ordu astean
IKASTARO TRINKOAK: 5 ordu egunean
MODULU TXIKIAK: 5 ordu astean

JARDUN BIKOAK: aurrez aurre eta auto-ikaskuntza batera
MINTZA-PRAKTIKA: 4 ordu astean (B2-C1)
AUTO-IKASKUNTZA
ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK
DENDAKETAN: Ostalari eta dendarientzat

MATRIKULA irailaren 23ra arte zabalik

GETXOKO UDAL EUSKALTEGIA (RKE)
Santa Eugenia plaza, 1. 4. solairua (Getxo)
944 646 299 - euskaltegi@getxo.eus
www.getxo.eus/eu/euskaltegi
www.udaleuskaltegiak.eus/eu
Getxo
Getxo

Zu hemen zaude,
AEK ere bai

Tú estás aquí,
AEK también

EUSKARA-IKASTAROAK · CURSOS DE EUSKERA

Uribe Kostako AEK

Ordutegi zabalak. A1-A2-B1-B2-C1-C2 Todos los horarios y niveles

Autoikaskuntza, online ikastaroak · Autoaprendizaje, cursos online

Eskaintza bereziak · cursos específicos **AISA, dendariak, guraso taldeak,..**

MATRIKULA ZABALIK IRAILA OSOAN · Matricula abierta todo septiembre
Izen ematea · Apuntarse en:
Leioa · 944 64 60 63 · **lamia@aek.eus**
Getxo · 944 30 47 34 · **lauaxeta@aek.eus**
Plentzia · 946 77 36 07 · **jentilbaso@aek.eus**
Gorliz · 946 77 36 46 · **jentilbaso@aek.eus**

http://www.aek.eus/blogak/uribekosta
www.facebook.eus/uribekostako.aek

DIRULAGUNTZAK | BECAS

EUSKO JAURLARITZA:
mailaren bat egiaztatuz gero
Gobierno Vasco, acreditando un nivel

BIZKAIKO ALDUNDIA:
deskontu-bonuak
Bonos descuento de la Diputación.

UDALEN DIRULAGUNTZA
Subvención municipal

POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI

Untzaga Ibaia kalea, 1. 48160 DERIO · 944 034 060 · info@txorierri.net · www.txorierri.net

40 urte gazteen talentua osatuz

Derioko Seminarioan Eskola Politeknikoa martxan ipini zenetik 40 urte pasatu dira. Garai hartan argi ikusi zen beharrezkoa zela Txorierrin eta Bizkai osoan formakuntza profesionala bultzatuko zuen entitate berritzaile bat.

Urte haietako industria-garapena zela eta, enpresek langile trebatuak behar zituzten, eta Arrasateko esperientzia kooperatiboa eredu hartuta, 1979an martxan hasi zen Politeknika Ikastegia Txorierri Kooperatiba Elkartea. Baina Bizkaiko gizartea asko aldatu da. Txorierriren helburuetako bat bilakaera horregaz bat egin eta talentua osatzea izan da. Eskolak garatze-prozesu izugarria izan du, eta hasierako bi espezialitateetatik sei izatera pasatu dira (Fabrikazio Mekanikoa, Diseinua, Robotika, Telekomunikazioak, Marketina eta Ingurumena). Batxilergoa ere badute.

Asko aldatu dira hezkuntza-metodoak, eta ohikoa zen hezkuntza memoristikoaren ordez beste eredu bat erabiltzen da orain, non ikasleari bere konpetentzia tekniko eta pertsonalak garatzen laguntzen zaion. Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Sailburuordetzak bultzatutako ETHAZI proiektuan buru-belarri murgilduta dago ikastegia. Enpresetako lanaldietan ere aldaketak izan dira, eta derrigorrezko praktikez gain formakuntza duala asko garatu da: azken urteotan, 40 proiektutik gora kudeatzen dituzte.

Espezializazio-programak ere horren eredu dira. Enpresen teknologia-garapena azkarra da, eta Lanbide Heziketa arruntak ezin dio erantzun. Horregatik, era dualean eskaintzen diren programa bitan hartzen du parte Txorierrik: trokelgintza eta automatizazio aurreratua.

40 urtean aldatu den beste gai bat da euskarak hezkuntzan izan duen presentzia. Horretan ere Txorierrik eboluzio handia izan du, Lanbide Heziketan bereziki. Hala ere, ikastegiko arduradunek gogoan dute mundua globalizazio-prozesuan murgilduta dagoela eta gazteek prestatuta egon behar dutela erronka horretarako. Horregatik, orain urte batzuk Nazioarteko Departamentua sortu zuten. Ikasle eta irakasleek Erasmus+ proiektu ugaritan parte hartzen dute, eta urtero atzerrian lan egiteko 50 beka kudeatzen ditu ikastetxeak, euskal enpresen plantetan. Kudeaketari dagokionez, 2005ean urrezko Q-a (Kudeaketa Euskal Saria) lortu zuten, eta joan den ikasturtean, berriz, AENORen ISO 9001 arauaren araberako zertifikazioa.

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Irakaskuntzarako Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1
48160 – DERIO
Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61
info@txorierri.net
www.txorierri.net

BATXILERGOA
- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Mekanizazioko Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produkzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazio eta Robotika industrialeko Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrol Goi-mailako Teknikari

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ikastetxea

IZAKINEN AMAIERAKO MERKATUA
MERCADO DE SALDOS GETXO 2019
25·26·27·28
IRAILA · SEPTIEMBRE
GETXOKO DENDEK KALERA ATERAKO DITUZTE BERE PRODUKTUAK
LOS COMERCIOS DE GETXO SACAN SUS PRODUCTOS A LA CALLE
PARTE-HARTZAILEAK
PARTICIPANTES
www.getxo.eus/getxolan
EURIA EGINEZ GERO
EN CASO DE LLUVIA
AZOKA URRIAREN 1ERA LUZATUKO LITZATEKE
EL MERCADO SE PROLONGARÁ HASTA EL DÍA 1 DE OCTUBRE
Getxo
bizi ezazu

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:

Bikoizketa

Pertsonaiak albo batera utzita, badira gutxienez 9 elementu irudi bietan ageri direnak.

Ikusten dituzu?

Kolore bi

Sudoku biek kolore bana dute oinarri eta osatu egin behar dituzu. Lehenengoan, URDINA berba osatzen duten hizkiak erabili behar dituzu (U, R, D, I, N eta A). Bigarrenean, berriz, BELTZA berba osatzen duten hizkiak erabiliko dituzu.

Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

U				N	R
		A			
I				D	
	R		N		
		R	U		
N	A		D		I

	T	L	E	Z	A
			T		
T		E			Z
Z			L		E
		T	B		
	E	B	Z	A	



Engainagarriak

Zazpi zati hauetatik hiru ezkerreko iruditik hartuta daude eta gainerako laurak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren ez datoz bat irudi nagusiagaz. Identifika itzazu.

5x5x5

Erreparatu ondo berdinak diruditen irudi bi hauei. Ezkerretik eskumara, bost elementu agertu dira, eta beste bost desagertu. Gainera, bost elementu aldatu dira. Topa itzazu.

Lehiaketa **Non dago?**

Uribe Kostako irudi honetan zer ageri den igarriz gero, beheko saria irabaz dezakezu.

Argazkia NON egindakoa den badakizu?

Saria

Umeentzako liburuak

Ibaizabal argitaletxeari esker, 10 urtetik gorako umeentzako hainbat liburu zozkatuko ditugu. Sari hori irabazi gura baduzu, irailaren 26a (eguena) baino lehenago bidali erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.

37. Antzerki JARDUNALDIAK
URRIA OCTUBRE
4-13
getxo Teatro
JORNADAS DE
04 ostirala // viernes
PINOTXO Glu Glu - EUS
18.00 Muxikebarri Ereaga
05 larunbata // sábado
BALDIN BADA Shakti Olaizola (Zirkua/Dantza)
13.00 San Nikolas Plaza
DUBLINESES Ados Teatroa - CAST
20.00 Muxikebarri Ereaga
06 igandea // domingo
SARDINA FRESKUE! Organik (danza)
13.00 San Nikolas Plaza
ANTZERKI ARINA TEATRO BREVE
18.00 Algortako Kultur Etxea
SEI Dantzaz (danza)
19.00 Muxikebarri Ereaga
11 ostirala // viernes
IZAR Marie de Jongh (testu barik)
18.00 Muxikebarri Ereaga
12 larunbata // sábado
YIJAAA!!! Goitibera - EUS
13.00 San Nikolas Plaza
EL VENENO DEL TEATRO
Tepsis teatro - CAST
20.00 Muxikebarri Ereaga
13 igandea // domingo
PORRUSALDA Kiliklon - EUS
13.00 San Nikolas Plaza
ANTZERKI ARINA TEATRO BREVE
18.00 Algortako Kultur Etxea
GHERO Tartean - EUS
19.00 Muxikebarri Ereaga
ANTZERKI ARINA
TEATRO BREVE
SARRERA SALMENTA / VENTA DE ENTRADAS
Algorta Kultur Etxea
Villamonte, A8 - 944 914 080
Romo Kultur Etxea
Santa Eugenia, 1 - 944 660 022
Sarreren salmenta: Venta de entradas:
www.kutxabank.es
Orotarako kutxazainak Cajeros multiservicio
kulturetxea@getxo.eus - www.getxo.eus
Antolatzaileak Organizadores
Getxo
Getxo KULTUR ETXEA
Babesleak Patrocinadores
Bizkaia
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
bbk

Baditugu aurtengo lehiaketaren hiru irabazleak, bejondeizuela!

Uribe Kostako abenturazaleen uda irudikatu gura izan dugu. Denera, 67 argazki batu ditugu, eta horien artean egindako zozketan hurrengo hirurek jaso dute saria. Eskerrik asko parte-hartzaile denei!

1 Iker J. *«Izabako ur-jauzia»*. Pertsona birentzako gau biko egonaldi bat NEKATUR Nekazal Turismo elkarteko ostatuetan, logela edo apartamentuetan (behe-denboraldian).

2 Alex L. *«Bakea»*. Pertsona birentzako gau biko egonaldi bat, gosaria barne, Plentziako Casa de Marinos hotelean (behe-denboraldian).

3 Irati A. *«Oikos»*. Algortako Aukera Okerra musika-taldearen kamiseta eta binilo bana.

Gozatu Getxophotoren bisitaldi gidatuaz!

Getxophoto jaialdiak irailaren 21ean egingo duen bisitan parte hartzeko bost sarrera bikoitz zozkatuko ditugu.

Erakusketak ikusi eta egileen motibazioaz informazioa jasoko duzu bertan jaialdiko artekari baten ahotik, 11:30etik 14:00etara gutxi gorabehera. Euskarazko jarduera izango da.

Irailaren 4an hasi zen Getxophoto, eta hilaren 29ra arte iraungo du. Gaur egungo azelerazioak, automatizazioak, adimen artifizialak zein aurrerapen teknologiko eta zientifikoek norbanakoei eragiten dizkieten erronkak izango dituzte hizpide, *Post Homo Sapiens* goiburupean.

Zozketan parte hartu gura baduzu, irailaren 18a (eguaztena) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona:

hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

prentsa euskaraz, pentsa euskaraz!

Zu zara giltza!

Egunero abentura ezin ederragoan
murgiltzen gara euskal prentsa egiten dugunok.
Bidaia horretan ezinbesteko lagun zaitugu zu, euskaraz bizi,
euskaraz arnastu, euskaraz pentsatu gura duzun hori.
Izan zaitez gure bidaide, izan zaitez HIRUKALagun!

Abentura honetako kide izateko: administrazioa@hiruka.eus

hiruka